



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR *BERRIOZARKO UDALA*

BERRIOZARKO UDALAREN HAUR ESKOLAKO GARBITZAILE ETA JANTOKIRAKO LAGUNTZAILE ARITZEKO ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO IZANGAIEN ZERRENDA BAT ERATZEKO DEIALDIA

1.– Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da haur eskolako garbitzaile eta jantokirako laguntzaile izateko lanpostuan aldi baterako kontratuarekin aritzeko izangaien zerrenda bat eratzea, Berriozarko Udalean sortzen diren beharrei erantzun ahal izateko.

Usalanda Gestión pública, S.L. udal sozietateak jo ahal izango du izangaien zerrendara, garbiketako langileen lanpostuak betetzeko. Kasu horretan, dagokien sektoreko hitzarmenak arautuko ditu kontratazioak.

Izangaien zerrenda honek indarririk eta ondoriorik gabe uzten du izangaien beste edozein zerrenda, Berriozarko Udalaren zerbitzuko haur eskolako garbitzaile izateko lanposturako aldi baterako kontrataziorako. Halaber, izaera subsidiarioa izango du enplegatu finkoen beste edozein zerrendarekiko –jada baden zerrenda edo etorkizunean egin daitekeena–, apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuan jasota dagoenaren babesaren pean.

1.2. Lanpostuak D mailako ordainsariak izango dituzte, Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzura aritzen diren langileei dagokiena. Era berean, plantilla organikoak aurreikusten dituen ordainsari-osagarriak jasoko dituzte, eta bai hitzarmen kolektiboaren bidez lor litezkeenak ere.

1.3. Lanaldia osoa edo partziala izan ahal izango da. Denak zerbitzuaren premietara egokituko dira eta eskumena duten administrazio organoek edozein unetan aldatu ahal izango dituzte, aplikatzekoa den araudian jasota dagoenarekin bat eginez.

1.4. Lanpostu honetan bete beharreko eginkizunak hauek dira:

Gauzatu beharreko eginkizun nagusiak hauek izango dira, besteak beste: eraikinetan eta lokaletan gainaldeak eta altzariak garbitzeko egitekoak gauzatzea, higienizatzea eta kontserbatzea bermatzeko egokiak diren teknikak, tresnak eta produktuak baliatuta, eta laneko segurtasunaren eta osasunaren gain aplikatzekoa den araudian ezarrita dagoenaren arabera; eta, oro har, D maila bati egun edo etorkizunean egokitzen ahal zaizkion guztiak eta ematen diren zerbitzuen antolaketa sistemetan eta osieran dauden aldaketetatik, lanbide eta bizibideen bilakaeratik, eta baliatzen diren tresnetatik eta lanabesetatik eratoritzen ahal direnak. Arreta eman behar da haur eskolako jantokian, haur eskolako zuzendariaren zuzendaritzapean. Haur eskolako gainerako langileekin elkarlanean aritu behar da, egitekoak pilatzen badira, langileren bat ez badago edo gaixo badago. Deskribatu direnez gain, lanpostuak exijitzen dituen gaitasunekin eta trebetasun profesionalekin koherentzian, haur eskolako zuzendaritzak agintzen dion beste edozein zeregin gauzatu behar du.



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR *BERRIOZARKo UDALA*

2.– Izangaien betebeharrak.

2.1. Deialdi honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiarra izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzen den estaturen batekoa. Era berean, parte har dezakete espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatuetakoa herritarren ezkontideek, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, baldin eta haien kontura bizi badira.

b) Adinez nagusia izatea eta erretiroa hartzeko adina gaindituta ez izatea.

c) Lanpostuari dagozkion eginkizunak gauzatzeko beharrezkoa den gaitasun fisikoa eta psikikoa edukitzea.

d) Eskakerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, gutxienez, DBHko graduatuaren titulua, Eskola graduatuen titulua, erdi mailako Lanbide Heziketakoa edo horien baliokide bat izatea, edo eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean lortzeko egoeran egotea.

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da.

Izangaiek alegatzen badute eskatutako kategorian aritzea ahalbidetzen dieten ikasketa baliokideak dituztela, baliokidetasun hori onartzen duen lege edo erregelamenduzko xedapena aipatu beharko dute edo, bestela, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako ziurtagiria aurkeztu.

e) Euskara jakiteko betebeharra duten lanpostuetan aritu nahi dutenek ere titulu hauek eduki beharko dituzte:

- Ahozko adierazpena: B2 (Hizkuntzen ikaskuntzarako, irakaskuntzarako eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua)
- Idatzizko adierazpena: B1 (Hizkuntzen ikaskuntzarako, irakaskuntzarako eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua)

Eragin hauetarako baliokidetzat hartuko da maila horri dagokion egiaztatze probaren bat gainditu izana, NAPIK edo Euskarabideak azken 3 urteetan egindakoa.

Hori frogatzen duen titulurik izan ezean, Euskarabidean euskara mailaren proba bat egingo da ezagutza hori frogatzeko. Proba egin nahi bada, izangaiak hala adierazi beharko du eskabidean, eta hautaketa prozesua gainditu eta gero egingo da.

f) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR **BERRIOZARKO UDALA**

baten zerbitzutik bereizia ez izatea. Espainiako nazionalitatea ez izanik parte hartu nahi dutenek zinpeko aitortpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, adierazteko ez dutela diziplina-zehapenik edo kondena penalik beren estatuko funtzio publikoan sartzea galarazten dienik.

3.– Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Berriozarko Udaleko Erregistro Orokorrean (Euskal Herria plaza, 1) aurkeztu beharko dira (08:00 eta 14:00 arteko ordutegian), edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako gainerako bideak ere erabil daitezke eskabideak aurkezteko. Zehazki, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita 15 egun naturaleko epean egin beharko dute.

Azken kasu horretan, eta eskabideak aurkezteko ezarritako epearen barnean, deialdian parte hartzeko eskaera posta elektronikoz bidaliko da oac@berriozar.es helbidera. Mezu elektronikoa adieraziko da dokumentu osagarriak zein erregistroan aurkeztu diren.

Eskabidea posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian aurkeztuko da, postako langileek data eta zigilua jar ditzaten, ziurtatu aurretik.

Eskabideak deialdi honen I. eranskinean argitaratzen den ereduari lotuko zaizkio. Eskabideetan izangaiek adierazi beharko dute hautaketa prozesuan parte hartzeko eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela. Eskabidearen ereduak Berriozarko Udaleko Erregistro Orokorrean emango da, eta, horrez gain, Internet bidez eskuratu ahal izango da, www.berriozar.es webgunean.

Eskabideak aurkezteko epea ezin izango da luzatu.

Eskabidean atzematen diren akats materialak edo egitezkoak ofizioz edo interesdunak eskaturik zuzendu ahal izango dira, noiznahi ere.

3.2. Behar bezala bete ondotik, eskabideari agiri hauek gehituko zaizkio:

a) Nortasun agiri nazionalaren kopia, edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.

b) Eskatutako titulazioaren kopia.

c) Euskararen ezagutza egiaztatzen duen dokumentazioa.

d) Espedientea formalizatzeko eta azterketa eskubideetarako 10,00 euro ordaindu izanaren ordainagiria (diru-sarrera egiteko kontua: ES84 2100 5184 5422 0009 8217, "la Caixa"). Transferentzia agindua honen alde egin beharko da: "Berriozarko Udala. Garbitzaile aritzeko hautaprobak". Ez bada tasa ordaintzen, izangaia baztertuta geldituko da.

Azterketa eskubideetarako tasak arautzen dituen ordenantza fiskalean (23. ordenantza)



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR **BERRIOZARKO UDALA**

ezarritakoarekin bat, honako hauek tasak ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

a) %33ko edo handik gorako desgaitasun maila aitortua dutenak.

b) Hautapoben deialdia egin aurretik hilabete batez edo luzaroago lan-eskatzaille gisa izena emanda egon diren pertsonak. Salbuespen hori aplikatzeko baldintza izango da inskribaturik egon diren bitartean eskainitako inolako lan egokiri uko egin ez izana eta lanbide sustapen, prestakuntza edo aldaketarako ekintzetan parte hartzeari uko egin ez izana, justifikaturiko kasuetan izan ezik, eta, horrez gainera, lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorakoa den diru-sarrerarik ez izatea hilabete oro.

Lan-eskatzaillea dela frogatzeko, behar den enplegu bulegoak emandako agiria aurkeztu beharko da. Bertan, lan-eskatzaille gisa izena eman zueneko data agertuko da, eta, orobat, adieraziko da izena emanda egon den bitartean ez diola uko egin handik eskainitako inolako lan egokiri, ezta lanbide sustapen, prestakuntza edo moldaketarako ekintzetan parte hartzeari ere, justifikatutako kasuetan izan ezik.

Behar den tasa ez ordaintzea nahikoa arrazoi izango da izangaia hautaketa prozeduratik baztertzeko.

Ez da azterketa eskubideen itzulketarik egingo, baldin eta izangaia baztertzen bada interesdunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik, esate baterako, beharkizunak ez betetzeagatik edo deialdian eskatutako agiriak ez aurkezteagatik.

4.- Behin-behineko zerrendak.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda Berriozarko Udalaren iragarki taulan kokatuko da eta bai udal webgunean ere (<http://www.berriozar.es>).

Egun horretatik aurrera eta bost egun balioduneko epearen barnean, izangai baztertuek erreklamazioak egin edo akatsak zuzendu ahal izango dituzte, udal erregistroan eskabidea aurkeztuta.

Ez badago izangai bazterturik, zuzenean behin betiko zerrenda kaleratuko da, hautaprobak egiteko eguna, ordua eta tokia adierazita.



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR *BERRIOZARKO UDALA*

5.– Behin betiko zerrendak.

Behin ebatzi direnean aurkeztutako alegazioak, Alkatetzaren Ebazpena emango da izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onesteko, eta Berriozarko Udalaren iragarki taulan eta udal webgunean (<http://www.berriozar.es>) emango dira argitara, aurreikusita dauden hautaprobak egiteko egun eta tokiarekin batera.

Onartuen zerrendan agertzea ez da nahikoa deialdi honetan eskatutako betebeharrak betetzen direla aitortzeko. Kontratatzerako deiaren unean izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa aztertuta, eskatutako baldintzetako bat, denboran edo forman, betetzen ez dutela ohartuz gero, interesdunek deialdi honetan parte hartzeagatik dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

6.– Kalifikazio epaimahaia.

6.1. Kalifikazio epaimahaia kide hauek eratuko dute:

–Epaimahaiburua: Raúl Maiza González, Berriozarko Udaleko alkatea.

–Ordezkoa: Berak izendatzen duen pertsona.

–Mahaikidea: Isabel Oyeregui, Berriozarko Udalaren haur eskolako zuzendaria.

–Ordezkoa: Berak izendatzen duen pertsona.

–Mahaikidea: Raquel Larraya Juandeaburre, Usalanda Gestión Pública, S.L. enpresa publikoko garbiketa-arduraduna.

–Ordezkoa: Berak izendatzen duen pertsona.

–Mahaikidea: Monica Bidegain Iriarte, Berriozarko Udaleko ordezkari sindikala.

–Ordezkoa: Jacobo Valdés Fernández, Berriozarko Udaleko ordezkari sindikala.

–Mahaikide-idazkaria: Natalia Rodríguez Aguado, Berriozarko Udaleko idazkaria.

–Ordezkoa: Berak izendatzen duen pertsona.

Epaimahaia hautaprobak egin baino lehen eratuko da.

6.2. Bere eraketak eta jarduketak balio izateko, gutxienez ere, kideen gehiengo osoak elkartu beharko du.

Halaber, epaimahaiaren eraketak eta jardunak balio izateko, epaimahaiburuak eta mahaikide-idazkariak edo haien ordezkoek bertan egon beharko dute.

6.3. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean abstentziorako aurreikusita dauden



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR **BERRIOZARKO UDALA**

arrazoiak suertatzen direnean. Organo deitzaileari eman beharko diote horren berri.

Era berean, izangaiek mahaikideak errefusatu ahal izango dituzte, aipatu diren egoera horiek suertatzen badira.

6.4. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduaren inguruan sortzen diren arazo guztiak.

6.5. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan edo guztietan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko eta epaimahaiari haietan bakarrik emango diote laguntza.

7.– Hautaketa prozesuaren garapena eta balorazioa.

7.1. Hautaketa prozesua bi probaren bidez egingo da. Bata teoriko-praktikoa izango da, eta bestea psikoteknikoa, eta biak ere baztergarriak izango dira. Proba horien puntu kopurua, gehienez ere, 100ekoa izango da.

7.1.1. Proba teoriko-praktikoa: proba teorikoan, deialdi honen II. eranskineko gai zerrendako gaietarako 50 galdera erantzun beharko dira, idatziz, gehienez ere 90 minutuan. Galdera bakoitzak hiru erantzun izango ditu aukeran, baina bakarra izango da zuzena. Horrez gain, galdera bat edo bi erantzun beharko dira, garatzekoak eta izaera praktikokoak.

50 galdera horiek gehienez ere 50 punturekin baloratuko dira, eta oker erantzundako galdera bakoitzari 0,25 puntuko zigorra ezarriko zaio. Garapen praktikoko zatia gehienez ere 20 punturekin baloratuko da. Gutxienez, 35 puntu lortzen ez dituzten izangaiek baztertuta geldituko dira, hau da, proban lor daitekeen puntu kopuru handienaren erdia lortzen ez dutenak.

Proba hau egiteko ez da inolako testurik erabili ahal izango, ezta kalkulagailurik edo bestelako materialik ere, bolaluma urdina edo beltza ez bada.

7.1.2. Gaitasun psikoteknikoko proba: proba psikoteknikoak egingo dira, izangaiek lanpostuaren profil profesionalaren eskakizunetara zenbateraino egokitzen diren zehazteko. Proba horiek Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak prestatuko ditu, edo hark izendatzen dituen langileek, eta haren balorazioak bete beharrekoak izango dira epaimahaiarentzat. 0 eta 25 puntu arteko kalifikazioa izango du proba psikoteknikoak, eta, gutxienez, 12 puntu eskuratzen dituzten izangaiek gaindituko dute proba.

7.2. Euskaraz jakitea, betebeharra ez den lanpostuetarako: euskaraz jakiteagatik, gehienez ere, 5 puntu emango dira. Hizkuntza Eskola Ofizial batek jaulkitako gaitasun ziurtagiri baten bidez edo baliokidetzat ofizialki aitortutako titulu baten bidez egiaztatu ahal izango da, edo, gainerakoan, NAPIk egindako proba bat gaindituta. Erakunde horrek zehaztuko du lortutako puntu kopurua, 0 eta 5 artean. Euskararen ezagutza frogatzeko proba egin nahi duten izangaiek



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR *BERRIOZARKo UDALA*

deialdian parte hartzeko eskabidean adierazi behar dute. Proba hori oposizio fasean aurreikusitako probaren amaieran egingo da.

Balioespena eskala honen arabera egingo da.

Euskara: gehienez ere 5 puntu.

A1 maila: 2 puntu.

A2 maila: 3 puntu.

B1 maila: 4 puntu.

B2 maila ahozkorako eta B1 idatzikorako: 5 puntu.

7.3. Hautaprobak egiteko, desgaitasun aitortua dutenentzat eta eskabidean eskatu dutenentzat beharrezkoak diren denbora eta baliabide egokitzapenak ezarriko dira.

Oposiziotik kanpo geldituko dira agertzen ez diren izangaiak.

7.4. Proba egiteko egunak, orduak edo tokiak iragarki taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko dira, aurretik, behar adinako denborarekin.

7.5. Izangai guztiek nortasun agiri nazionala edo legez harekin parekatuta dagoen agiria eraman behar dute probak egitera. Probetan iruzurrez aritzeak berekin ekarriko du berehala baztertea, alde batera utzirik, egokiak badira, jardunbide penalak abiaraztea.

8.– Zerrenda.

Behin probak eginda, izangaiak hartuko dituen zerrenda bat egingo da, puntu kopuruaren ordenaren arabera. Zerrenda hori, era berean, Internet bidez kontsultatu ahal izango da www.berriozar.es webgunean.

Parte-hartzaileen artean berdinketarik gertatzen bada, proba teoriko-praktikoan puntu kopuru handiena lortu duena kontuan hartuta ebatziko da.

Lehenago ezarritako irizpideak aplikatuta ere berdinketak jarraitzen badu, epaimahaiak egingo duen berriarazko zozketa bakar baten bidez ebatziko da. Berdinduta dauden pertsona guztien artean bat hautatuko da ausaz. Berdinketa guztiak alfabeto ordena kontuan hartuta desegingo dira, zozketan hautatutako pertsonaren izen-abizenak abiapuntu hartuta. Haren emaitzak webgunean eta Berriozarko Udalaren iragarki taulan kaleratuko dira.

9.– Aldi baterako kontrataziorako dei egitea.

1.- Deietarako arau orokorrak.



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR *BERRIOZARKo UDALA*

Langileak kontratatzeke beharrei erantzuteke izangaiei deitzea bakarkako deiaren bidez egingo da, dagokion zerrendan izangaiak dauden lehentasun ordenaren arabera, aintzat hartuta, beren kasuan, dagozkien profilak.

Errazago aurkitu ahal izateke, izangaiak harremanetarako telefono bat behintzat eman beharko dute, harremanetarako beste telefono batzuk edo helbide elektronikoa ere ematea alde batera utzita. Informazio hori etengabe eguneratua eduki behar dute.

Izangaiak emandako zenbakira egingo dira kontratua eskaintzeko deiak, zerrendaren ordenari jarraituta. Deiaren emaitza idatziz jasoko da (interesatzen zaio, ez zaio interesatzen, ez du erantzuten).

Edonola ere, bakarkako dei horiek arin egingo dira, kontratatzeke beharrari ahalik eta azkarrena erantzuteke modua izateke. Kontratua eskaini behar zaion izangai bakoitzaren kasuan, gutxienez, aurkitzeke hiru saiakera egingo dira harremanetarako telefonora, bi egunean.

Lehenbiziko komunikazioan ez bada lortzen izangaiarekin harremanetan jartzea, informazioa emateke SMS bat bidaliko zaio.

Izangai batekin harremanetan jartzerik ez bada, zerrendan hurrengoa denari edo direnei deituko zaie, harik eta eskaintzen den lanpostua bete arte.

Sei hilabeteko aldiari harremanetan jartzerik izan ez den izangaiak dagokien zerrendan “ez deitzeke moduan” egotera igaroko dira.

Kontratazioa urgentziazkoa bada –halakotzat hartuko da lanpostuan hastea gehienez ere 24 orduko epean egin behar denean eta hasiera batean aurreikusita dagoen iraupena hiru hilabetekoa edo laburragoa denean– harremanetan jartzea lortzen den eta lanpostuan berehala hastea onartzen duen lehen izangai libreari eskainiko zaizkio, gorago xedatutakoa bete behar izan gabe.

2.- Araubide orokorraren salbuespenak.

a) Ordezkapen kontratu baten arabera lanpostu bat bete duenean izangai batek eta kontratua amaitu denetik 20 egun igaro baino lehen lanpostu hori bera aldi baterako betetzeke premia sortzen bada, kontratua izangai berberari eskainiko zaio, baldin eta dei berriaren unean baldintza hauek betetzen badira:

- Deia egiten den unean indarra duen zerrenda batean egotea izangaia.

- Kontratuaren bukaeraren arrazoia ez izatea hari uko egin izana.

- Kontratua amaitu ez izana zerrendetatik kanpo uztea dakarren arrazoietakoren batengatik.



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR *BERRIOZARKo UDALA*

b) Izangai batek lanaldi partzialeko kontratu bat duenean, lantokian sortzen bada berak gauzatu dezakeen premia bat, izangai horri eskainiko zaio premia hori, kontratazio berriaren ondorioz onartu behar duen ordutegi osoa bateragarria baldin bada une hori bitartean izendatuta zuenarekin, lanaldiaren %100a osatu arte. Zenbait langilek lanaldi partzialeko kontratua badute, une horretan indarrean dagoen aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendan duten postuaren ordena zorrotzari jarraituta dagokion pertsonari eskainiko zaio.

3.- Kontratatzeke eskaintzari uko egitea.

Izangairen batek eskaini zaion lanpostuari uko egiten baldin badio, zerrendaren azken tokian geldituko da, ondoko egoera hauetakoren baten dagoela frogatu ezean. Hartara, egoera horietakoren batean dagoela frogatzen badu, zerrendan duen tokian geldituko da:

- Amatasun, aitatasun, adopzio edo harrerarengatik lizentzia izatea.
- Aldi baterako ezintasun egoeran izatea.
- Indarrean dagoen lan kontratu bat izatea.
- 6 urte baino gutxiagoko semea edo alaba zaindu beharrean egotea. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaiak ez dira berriz deitzeko moduan egongo, harik eta kontratuari uko egin ziotenetik gutxienez hilabete bat igaro arte.
- Zaindu behar badu bigarren gradura arteko odol edo ezkontza bidezko ahaide bat, adina, istripua edo eritasuna dela-eta bere burua ezin gobernatu duena. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaiak ez dira berriz deitzeko moduan egongo, harik eta kontratuari uko egin zioten egunetik gutxienez hilabete bat igaro arte.
- Norberaren ezkontza edo Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Legearen arabera parekatutako egoera, baldin eta eskainitako kontratazio administratiboaren hasiera eguna hura eratu ondoko edo aurreko hamabost egun naturalean bada.

Kasu hauetan, izangaia aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendan "ez deitzeko moduan" egotera igaroko da, izangaiak berak eskatu arte "deitzeko moduan" egotea, alegatutako inguruabarra amaitu delako. Deitzeko moduan dagoela jakinarazten duen unean, dokumentuen bidez eta dudarik gabe egiaztatu beharko du kontratua eskaini zitzaion unean alegatutako egoera batera gertatu izana.

4.- Zerrendaren azken tokira igarotzea.

Zerrendaren azken postura igaroko dira ondoko egoera hauetakoren batean dauden izangaiak:

a) Deia egin eta lanpostua onartu ondotik, kontratua ez sinatzea, izangaiari egotzi beharreko



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR
BERRIOZARKo UDALA

arrazoiengatik.

b) Sinatutako kontratuari uko egitea.

5.- Zerrendatik baztertzea.

Deia eragiten duen zerrendatik baztertuko dira ondoko egoera hauetako batean dauden izangaiak:

a) Udalak kontratua deuseztatzea probaldian, zuzendaritzak txosten arrazoitua egin eta gero.

b) Lanpostua bertan behera uztea, justifikatutako arrazoirik gabe eta inolako komunikaziorik ezarri gabe zentroko zuzendaritzarekin.

c) Kontratua amaitzea gerora sortutako arrazoiak direla kausa, hain zuzen, kontratatzen den langilea lanpostuan aritzeko gaitasun edo egokitzapen faltagatik, horrek lanpostuak dituen eginkizunak eraginkortasunez betetzea galarazten duen errendimendu eskasa bada, edo lanpostuaren edukia aldatu delako, interesatuari entzunaldia eman eta Langileen Batzordeak edo Langileen Ordezkariek txostena egin ondoren.

Aldian behin, Alkatetzaren Xedapenaren bidez, artikulua honetan ezarritako kasuetakoren batean egoteagatik baztertutako izangaien zerrenda onartuko da. Ebazpen hori, zehazki, Berriozarko Udalaren webgunean argitaratuko da.



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR
BERRIOZARKo UDALA

11.– Helegiteak.

Deialdi honen, haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, hautaz, ondoko helegiteetako bat aurkez daiteke:

a) Berraztertze helegitea, egintzaren organo egileari zuzenduta, hel egindako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-helegitea, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko arlo bereko salari zuzenduta, erabaki hau edo hel egiten den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

c) Gora jotzeko helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzenduta, hel egindako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean.

Kalifikazio epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko helegitea aurkez daiteke –Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean, 112. artikuluan, aipamena egindakoak–, alkateari zuzenduta, hilabeteko epean, hel egindako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

Berriozarren, 2017ko irailaren 25ean. Alkatea, Raúl Maiza González



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR
BERRIOZARKO UDALA

I. ERANSKINA

D/D ^a	<i>jn./and.</i>	Doc. N ^o Agiri zk.
Domicilio. <i>Helbidea</i>		C.P. P.K.
Localidad <i>Herria</i>	N ^o teléfono <i>Telefono zk.</i>	Correo electrónico <i>Posta elektronikoa</i>

(táchese lo que no proceda) en nombre propio o en representación de
(*ezabatu behar ez dena*) *bere izenean edo ondoko honen izenean:*

D/D ^a	<i>jn./and.</i>	Doc. N ^o Agiri zk.
Domicilio. <i>Helbidea</i>		C.P. P.K.
Localidad <i>Herria</i>	N ^o teléfono <i>Telefono zk.</i>	Correo electrónico <i>Posta elektronikoa</i>

Ante VD. comparece y como mejor proceda dice:

Zure aurrean agertu eta azaltzen dut:

Que, vista la convocatoria realizada por el Ayuntamiento de Berriozar para la constitución de una lista de personal de limpieza y apoyo a comedor para la escuela infantil para contrataciones temporales.

Berriozarko Udalak deialdia egin duela Berriozarko Udaleko Haur Eskolako garbitzaile eta jantokirako laguntzaile izateko izangaien kontratazio-zerrenda osatzeko (aldi baterako lan-kontratua).

SOLICITA

ESKATZEN DUT

Ser admitido/a a la citada convocatoria, indicando:

Aipatutako deialdian onartua izatea eta, horretarako, zera azaltzen dut:

Que solicita ser llamado/a también, para puestos en los que sea requisito el euskera y que con el fin de acreditar el nivel de euskera (Expresión oral: B2 y Expresión escrita: B1)

Euskara maila egiaztatzeko (Ahozkoa: B2 eta Idatzizkoa B1):

a/ tiene certificación oficial

a/ ziurtagiri ofiziala aurkezten dudala

b/ solicita realizar prueba de nivel de euskera

b/ euskara proba egitea eskatzen dudala

Que cumple en tiempo y forma todos y cada uno de los requisitos exigidos en las bases de la presente convocatoria.

Deialdian eskatutako baldintza guztiak betetzen ditudala, garaiz eta forman.

Berriozar, (fecha / data) _____

(firma / sinadura)

PROTECCION DE DATOS. En cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica de 13-XII-1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa que los datos de carácter personal facilitados en el presente impreso se utilizarán exclusivamente para el ejercicio de las competencias propias de esta Administración y serán incorporados a los ficheros que conforman la base de datos del Ayuntamiento de Berriozar, ante el que podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose al Registro General (Plaza Euskal Herria 1, bajo, 31013 BERRIOZAR).

DATUEN BABESA. Datu Pertsonalak Babesteko 1999-XII-13ko Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, jakinarazten dizugu inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak Administrazio honek berezko dituen eskumenak gauzatzeko baino ez direla erabiliko. Datu horiek Berriozarko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan bilduko dira. Beraz, Berriozarko Udalera zuzenduta gauzatu ahalko duzu datu horiek eskuratu, aldatu, baliogabetu eta horien kontra egiteko eskubidea (Erregistro Orokorra, Euskal Herria Plaza 1, 31013 BERRIOZAR).



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR
BERRIOZARKo UDALA

II. ERANSKINA

GAIEN ZERRENDA

- 1.- Oinarrizko kontzeptuak garbiketari buruz eta zoruen fitxa teknikoak. Zikinkeria: jatorria eta ezabaketa. Zorua, sailkapena.
- 2.- Garbiketa zerbitzuaren antolamendua eta kontrola. Lantaldeak. Garbiketako langileen eginkizunak. Garbiketari buruzko kontzeptu orokorrak. Garbiketako materialaren zainketa.
- 3.- Makinak eta garbiketa sistemak.
- 4.- Garbiketa sistemak. Zoruan erratza pasatzea. Moparekin fregatzea. Altzairuak garbitzea. Komunak garbitzea. Kristalak garbitzea.
- 5.- Zentro publikoak garbitzea. Administrazio eremuak garbitzea. Bainugela eta komun publikoak garbitzea.
- 6.- Produktu kimikoak garbiketan. Produktu bakoitzaren ezaugarriak. Produktu horien gaineko arau orokorrak. Garbiketarako eragindako desinfekzioa. Arriskuak identifikatzea produktu horiek erabiltzerakoan. Produktuen etiketak.
- 7.- Hondakin eta zaborren gaikako bilketa: hondakin mota desberdinak bereizi eta botatzea.
- 8.- Laneko segurtasun eta osasunari buruzko ezagutzak: arrisku motak eta horiei aurrea hartzea; norbera babesteko ekipoak.
- 9.- Haurren elikadura. Haurren beharrak asetzea. Jantokian laguntzeko langileen eginkizuna. Haurren mantenua. Haurren premietara egokitutako menuak. Alergiak eta intolerantziak.
- 10.- Haurren garbiketa eta higiena. Esfinterren kontrola: garrantzia, esanahia eta estrategiak. Jantokian laguntzeko langileen eginkizuna.
- 11.- Atsedenaldea haurtzaroan. Helduen eginkizunak loari dagozkion beharrak asetzen. Loa eta atsedena haur eskolan.
- 12.- Komunikazio ireki eraginkorra. Entzute aktiboa. Feedbacka.
- 13.- Gatazkak kudeatzea, aurrea hartzea, gatazketan bitartekotza egitea, jarrerak.
- 14.- Berriozar: geografia, historia, ohiturak eta tradizioak. Udala: udalaren antolaketa eta eskumenak. Elkartek eta erakundeak. Eraikin publikoak eta haien erabilerak.